

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 45 plaza sortu ditu Nafarroako Administrazioan Lan Eskaintza Publikoan sartzeko

Gainera, espezialitatea eta hizkuntza eskakizunak zehaztu ditu Hezkuntzako plaza hutsetarako, eta esparru desberdinetako plaza elebidunak eta hauei dagokien euskara maila

Asteazkena, 2018.eko azaroak 28

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta honen erakunde autonomoetako plantilla organikoa aldatzeko Foru Dekretua onartu du gaurko bileran, 2018ko eskaintza publikoari gaineratuko dizkion 45 plaza sortuz. Gainera, espezialitatea eta hizkuntza eskakizunak zehaztu ditu Hezkuntzako plaza hutsetarako, baita esparru desberdinetako plaza elebidunak eta hauei dagokien euskara maila ere.

Funtzionario araubideko **45 plazen sorrerari** dagokionez, honako hauek dira: Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuko Barneko Zuzendaritza Nagusian, Inspektorea izateko 2 plaza B mailarekin, Inspektoreordea izateko 5 plaza B mailarekin, Agentea izateko 28 plaza C mailarekin eta Suhiltzailea izateko 10 plaza C mailarekin.

Gainera, dekretuak espezialitatea eta hizkuntza-eskakizuna zehaztu ditu [Hezkuntzako 326 plaza hutsetarako](#). Zehazkiago esanda, Bigarren Hezkuntzako eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasle-plazetarako, LHko Irakasle Teknikoen postuetarako eta Hezkuntza Departamentuko maisu-maistra postuetarako.

Bestetik, **plaza elebidunak eta hauei dagokien euskararen ezagutza maila zehaztu dira ondoko Departamentuetan:**

-Nafarroako Zerga Ogasuna: Ogasuneko Gestore edo Ikertzaile Laguntzailea izateko plaza 1 C1 mailarekin.

-Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentua (Barneko Zuzendaritza Nagusia): Suhiltzailea izateko 8 plaza B2 mailarekin eta Agentea izateko 4 plaza B2 mailarekin.

-Osasun Departamentua Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua: Familia eta Komunitate Erizaintzako Erizain Espezialista izateko plaza 1 B2 mailarekin.

-Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua:

-Lehen Mailako Arreta: LATeko Medikua izateko 5 plaza B2 mailarekin, LZNeko Medikua izateko 2 plaza B2 mailarekin, LZBeko Medikua izateko 2 plaza B2 mailarekin, Odontologoa izateko plaza 1 B2 mailarekin, eta Erizaina izateko 12 plaza B2 mailarekin.

-Nafarroako Ospitalegunea: Erizaina izateko 10 plaza B2 mailarekin eta Osasun Hezitzailearen Gradu Ertaineko Teknikaria izateko 2 plaza B2 mailarekin.

-Osasun Mentala: Psikologo Klinikoa izateko 2 plaza B2 mailarekin, Erizaina izateko 2 plaza B2 mailarekin, Osasun Mentaleko Eritzaintzako Erizain Espezialista izateko plaza 1 B2 mailarekin eta Terapeuta Okupazionala izateko plaza 1 B2 mailarekin.

-Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua: Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusia: Liburutegien Arduraduna izateko plaza 1, C1 mailarekin.

-Hezkuntza Departamentua: Unibertsitateetako eta Giza Baliabideetako Zuzendaritza Nagusia: Sistema Informatikoetako Ofizial Teknikoa izateko 2 plaza, C1 mailarekin.

Gaurko bileran onartutako Foru Dekretu hau da, joan den asteetan sindikatuekin negoziatu eta luze gabe Gobernuaren bileran onartuko den 2018ko ohiko Lan Eskaintza Publikoa onartzeko bete beharreko alde aurreko pausoa.